



2022/2023 denboraldia

19. ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN OHOREZKO ERREGIONAL MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

- 1 HERNANI C.D.
- 2 BETI GAZTE K.J.K.E.
- 3 LEINTZ ARIZMENDI
- 4 ZUMAIAKO F.T.
- 5 MARIÑO C.D.
- 6 LAGUN ONAK C.D.
- 7 OSTADAR S.K.T.
- 8 BERGARA K.E.
- 9 TOLOSA C.F. "B"
- 10 AMAIKAK BAT MUTRIKU K.E.
- 11 UROLA K.E.
- 12 TOURING KE
- 13 REAL SOCIEDAD S.A.D. "C"
- 14 ANTIGUOKO K.E.
- 15 URNIETA K.E.
- 16 INTXAURDI K.E.

2. LEHIAKETA SISTEMA

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa **16 taldek** osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntu bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Emakumezkoen Euskal Ligara menpekotasunik ez duen lehen sailkatua igoko da.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bigarren sailkatuen artean jokatu da play offeko irabazlea ere igoko da. Play offa hiru joko sistemaren bidez egingo da (3x1).



Azken 3 sailkatuak Emakumezkoen Gorengoan Mailara jaitsiko dira. Zirkularrean aurreikusitako igoerekin eta jaitsierekin eta Emakumeen Euskal Ligako balizko jaitsierekin 16 talde baino gehiago egongo balira, jaitsieren kopuruak gora egingo luke 16 taldetan geratzeraino.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezeko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etatik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

5. XEDAPEN OROKORRA

Emakumezkoen Ohoreko Erregional Mailaren helburua 14-16 taldeko multzoa osatzea da. Hori dela eta, zirkularrean aurreikusitako igoera eta jaitsierekin, eta Euskal Ligatik egon daitezkeen jaitsierekin multzoa talde bakoitiek geratuko balitz, lurraldeko kategoria guztietan igoera eta jaitsierekin erabiltzen den irizpide orokor bera erabiliko da; hau da:

- Emakumezkoen Gorengoan Mailako talde bat igota.
- Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailatik jaitsiera bat saihestuta.
- Eta horrela behin eta berriro.

6. LIZENTZIAK

Inskribatutako taldeek gehienez 25 lizentzia izan ahalko dituzte, "FA", "FJ" eta "FF" lizentzietan dagozkienak; azken kasu horretan, **15 urte beteta eduki beharko dira. Lehen taldean izena emanda** dauden "FJ" eta "FF" lizentziadun jokalariek ezingo dute beren lizentziari dagokion taldean jokatu, hau da, jubeniletan edo kadeteetan.

7. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.



8. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2022ko iraila

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**


**Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General**